

## KANALAK

Kanalen bitartez, gure produktua bezeroei heltzea lortuko dugu. Kanalen artean, hiru bereiztu ditzakegu; komunikazio-kanala, banaketa-kanala eta salmenta-kanalak.

- **Komunikazio-kanala:** Komunikazio kanalaren bitartez gure bezeroekin kontaktuan jarriko gara, horrela, haiek dituzten zalantza guztiak helaraziko dizkigute. Funtzio hau aurrera eramateko, telefono zenbaki bat emango (ipiniko)diegu gure bezeroei webgunean. Honen bitartez, guk deia jasoko dugu eta haien beharrak asetuko ditugu. Bestalde, email helbide bat emango dugu gure produktuarekin batera, bezeroek dituzten zalantzak bertan idazteko, guk 24 ordu baino gutxiagotan erantzuteko konpromisoa hartzen baitugu. Gure bezeroek, produktuaren gainean dituzten **pertzepzioak** seriotasuna adieraztea nahi dugu. Horretarako, gobernu eta erakunde publikoekin harremana estua mantenduko dugu (Ikusi “Elkarteak” atala). Horrela gure bezeroengandiko **ebaluazio** positibo bat izatea espero dugu.
- **Banaketa-kanala:** Kanal mota hau gure produktuaren banaketan oinarritzen da, bezeroei eskaini ahal izateko. Eskumuturrak bezeroengana eramateko garraio bideak erabiliko ditugu, adibidez, etxebizitzetara zuzenean eramateko furgonetak edo salmenta tokietara eramateko kamioiak. Urrutiko lekuetara garraiatzeko, banaketa enpresen hegazkinak erabiliko ditugu, bezero kantitate handiago batera heltzeko.
- **Salmenta-kanalak:** Hauek gure produktua saltzeko bideak zehazten dituzte. Orokorrean, kanal propioa erabilia, denda online baten bidez salduko ditugu (guk sortutakoa), baina elkarte publikoen jarduera tokietan ere salduko ditugu (esaterako, ospitaletan edo Emakunde zentroetan, “Elkarteak” atalean azaldu dugun moduan). Horren bidez, gure merkatua zabaltzeko aukera izango dugu, eta online dendak erabiltzen ez dakitenenek (batez ere, agureak), eskumuturra leku fisiko batean erosteko aukera izango dute. Salmenta ostean, gure bezeroek erosketaren esperientzia ona izaten jarrai dezaten, ez dugu haiekiko harremana bukatuko, oraindik zalantzak badituzte, emailez edo telefonoz gurekin harremanetan jarri dezakete lagundu diezaiegun. .

